

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Garitano Laskurain

*Bergara,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Begarako Bidekrutzeta kalean jaioa, guraso biak Begarakoak zituen. Aitak Movilla ehun lantegian egiten zuen lana. Hiru senidetan zaharrena, 13 urterarte eskola nazionaletan ibili zen eta ondoren banku batean egin zuen lana erretiroa hartu arte, 50 urtean: hasieran Banco de San Sebastian zen, gero Banco Hispano Americano; azken urteetan Laboral Kutxan egin zuen lana. Jesus Okinarekin marrazketa ikasi zuen mutikotan eta Maestria eskolara ez joatearen penaz geratu zen. Abesbatzako kidea. Euskaltzalea, batez ere erretiratu zenetik saltsa askotan ibili dena, besteak beste iritzi artikuluak idazten.

Zintak

BER-378

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-07-23
- **Iraupena:** 130 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

BER-386

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Data:** 2024-12-03
- **Iraupena:** 10 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Aita eta aitona, Movilla ehun-fabrikako langileak

- **Erref:** BER-378/002
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:00:38. **Bukatu:** 00:02:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ezagutu edo aztertu dituen aurreko senide guztiak bergararrak ditu. Gurasoak kaletarrak ziren, nahiz eta ama kaleko baserrikoa izan. Hiru senidetatik nagusiena da Pedro. Ama etxekoandrea zen eta aitak ehungintzan lan egiten zuten, Movilla Fernandez y Compañía lantegian. Aitonak ere bertan egin zuen lan eta San Antonio auzoan zegoen.

2. Bergara, ehungintzan espezializatutako herria

- **Erref:** BER-378/003
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:02:44. **Bukatu:** 00:04:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Movilla Fernandez y Compañía, Bergarako San Antonio auzoan kokatuta zegoen enpresa bat izan zen, langile asko zituena. Bergaran hamaika ehungintzako fabrika egon ziren garai batean. Estatu guztian erabiltzen zen denim oihalaren %80 inguru, Bergaran egiten zen. Emakume askok lan egiten zuten Bergarako fabriketan ere.

3. Ehungintzaren beherakada

- **Erref:** BER-378/004
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Ehungintzaren industriak ez zuen asko iraun, lantegien arteko elkartasuna eman ez zelako. Gaizki planifikatutako industria bat izan zen. Lasagabaster izan zen azkenengo ehungintzako fabrika Bergaran.

4. Maoia, Bergarako ikurra

- **Erref:** BER-378/005
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:06:35. **Bukatu:** 00:08:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Bergaran hamaika ehungintza fabrika egon ziren garai batean. Maoia egiten zen eta "villa maonera" deitzen zioten Bergarari. Oihal elegantea zen garai batean, baina gaur egun ez. Pol-pol-eko urak maoiaren kolorea hobetzen zuela esaten zen.

5. Hamahiru urterekin bankuan lanean

- **Erref:** BER-378/006
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:08:19. **Bukatu:** 00:10:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Eskola nazionaletan ibili zen hamahiru urtera bete zituen arte. Ikasten jarraitu nahi zuen eta izena emanda zeukan, baina bankuko jabeak lanpostu bat eskaini zion eta etxekoek hara bidali zuten Pedro.

6. Bergarako Arte eta Ofizioen eskola

- **Erref:** BER-378/007
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:11:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Jesus Okina pintorearekin ikasi zuen marrazten. Bergaran Arte eta Ofizioen Eskola zegoen Beheko Plazako merkatuaren eraikinean. Zementu armatuz egindako lehen eraikuntza izan zen Gipuzkoan. Bertan ikasi zuen Pedrok marrazten.

7. Bergarako artistek erabiltzen dituzten koloreak

- **Erref:** BER-378/008
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:11:42. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Simon Arrieta artistarekin ez zen akademian egon, baina oso laguna du. Bere margoa nolakoa den azaltzen du. Bergarako artistek, kolore antzerakoak erabiltzen dituztela uste du.

8. Bergarako eskola nazionala

- **Erref:** BER-378/009
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:13:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola nazionaletan ibili zen, gaur egun epaitegia dagoen lekuan. 6 urtetik 13 urtera arteko mutilak elkarrekin ikasten zuten.

9. Aita, gerran ejerzitoarentzat oihalak egiten

- **Erref:** BER-378/010
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:13:49. **Bukatu:** 00:14:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Gerra hasi zenean, bere aita militarizatu egin zuten eta soldadutza egin beharrean, fabrika armadarentzat oihalak egiten jarri zuten.

10. Eskolatik atera eta euskaraz hitz egiten zuten

- **Erref:** BER-378/011
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:14:14. **Bukatu:** 00:15:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Nahiz eta etxean beti euskara erabili, kalean bizi zirenez gaztelaniaz bazekiten. Eskolak ere gaztelaniaz ziren eta baserrietatik joaten ziren mutilek zailtasunak izaten zituzten. Eskolan ez zegoen aukerarik euskaraz egiteko, nahiz eta maisuak ere bertakoak izan. Ez du zigorrik gogoratzen. Eskolatik ateratzean denek euskaraz egiten zuten. Don Marino Basterra, Don Elias Azpiazu, Don Ignacio Zabala, Tomas Barrena... ziren maisuak.

11. Hika gutxi erabili du

- **Erref:** BER-378/012
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:15:51. **Bukatu:** 00:17:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Mugertza eta San Lorentzo inguruak ziren Bergarako zona euskaldunenak. Ama bertakoa zuen Pedrok eta aita kaletarra zen. Etxean beti egin dute euskaraz eta amak batzuetan hika egiten zion. Lagunen artean, hika erabiltzen zuten jolasetarako. Auzoetan (Angiozarren adibidez), hika gehiago erabili da.

12. Bergarako auzo euskaldunenak

- **Erref:** BER-378/013
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bergaran, bi alde ezberdin zeuden. Alde batetik, oso euskaldunak ziren auzoak eta bestetik, "altos hornos" eta San Antonio inguruetan nahastuta zeuden euskaldunak eta erdaldunak, kanpotik etorritako familiengatik. Herriko zentroan, dirudunak bizi ziren eta batzuk ez zekiten euskaraz.

13. Erdaldunen bat badago, gaztelaniara aldatzen dute

- **Erref:** BER-378/014
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:20:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Lagunekin beti euskaraz egin du, baita gaur egun ere. Hala ere, baten batek ez badaki, gaztelaniara aldatzeko ohitura dute, nahiz eta eta pertsona hori bergararra izan eta ez duen inoiz euskara ikasi.

14. Goserik ez, baina gabezia asko, bai

- **Erref:** BER-378/015
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:20:41. **Bukatu:** 00:22:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ondoren, errazionamenduan zer ematen zieten. Gosea ez zuen jasan, baina gauza askoren gabezia zegoen. Denak argal-argalak ziren.

15. Ogi zuri bat lortzeko, ezkutuan ibili behar

- **Erref:** BER-378/016
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:22:21. **Bukatu:** 00:23:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Mizpildi kalean, okindegia zegoen epaitegitik gertu. Okinak batzuetan ogi zuria ematen zieten eta ezkutuan eraman behar izaten zuten. Ez zen benetako ogi zuria, baina behintzat ez zen errazionamenduko ogi ilun gogorra.

16. Ikasle onenei ahozko azterketa

- **Erref:** BER-378/018
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:24:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Ikasle ona zen eta notak ez bazeuden ere, ikasturte amaieran, maisuak ikasle onenak hartzen zituen eta herriko abadeak, alkateak eta epaileak, galdera batzuk egiten zizkieten.

17. Ikasle onenari saria: oihala, ogia eta melokotoia

- **Erref:** BER-378/020
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:24:58. **Bukatu:** 00:26:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

San Martin egunean, merkatu plazaren eraikinean eskola bakoitzeko 5 ikasle inguru joaten ziren eta ikasle onenei sariak banatzen zizkieten. Saria, alkandora bat egiteko oihal bat, ogi bat eta melokoi bat izaten zen.

18. Lanetik ateratzean kontabilitatea ikastera

- **Erref:** BER-378/021
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:26:22. **Bukatu:** 00:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Maisuek ez zuten soldata handiegirik eta arratsaldetan klaseak ematen zituzten. Lanetik ateratzean kontabilitateatea ikastera joaten zen Pedro, bankuko lanak hobeto egiteko.

19. Suhiltzaileak Bergaran

- **Erref:** BER-378/023

- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:28:06. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Lanbideak » Udal langileak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Merkatuko eraikinean, suhiltzaileen hodiak egoten ziren zintzilik. Ura botatzeko, motor txiki bat zeukaten, errekan sartzen zutena. Ume batzuk hodiak zulatzen zituzten.

20. Mutilak eta neskak beti banatuta

- **Erref:** BER-378/024
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:31:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Esku-pilotan jolasten zuten. Baloirik ez zuten eta ez zuten futbolera jolasten. Eskupilotan jende askok egiten zuen eta afizioa zegoen. Neskak beste jolas batzuetan ibiltzen ziren. Neska bat ikustean gorritu egiten ziren. Ez zeukaten harremanik neskekin, beti banatuta zeudelako (eskolan, elizan...).

21. Eskolan errezatzen eta kanta frankistak abesten

- **Erref:** BER-378/025
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:31:10. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Eskolan, egunean 4 kantu frankista abesten zituzten eta beti errezatzen zuten. Ez zuten asko ikasten. Benetako jakintzak jasotzeko, arratsaldeko klaseetara joan behar izaten zuten. Eskolan Espainiako historia ikasten zuten gehienbat.

22. Elizaren errepresioaren belaunaldikoak

- **Erref:** BER-378/026
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:36:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Doktrina eskolan bertan jasotzen zuten eta jaunartzerako prestatzen zituzten. Urte batzuetara "Luisetara" joaten ziren, Luisen Kongregaziora. Herri guztia zegoen elizaren menpe eta belaunaldi erreprimitu bat izan dira. Neskekin ibiltzeko aukerarik ez zegoen. Neskak, kalean gora eta behera ibiltzen ziren pasioan besotik helduta.

23. Aitorlekuekin, elizak bizitza kontrolatzen zuen

- **Erref:** BER-378/027
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:36:53. **Bukatu:** 00:38:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Neskak, bekatuzko tresna bat bezala ikusten zela uste du Pedrok. Abadeari guztia konfesatu behar izaten zitzaion. Aitorlekuen bitartez, elizak bizitza kontrolatzen zuen.

24. Igandeko dantzaldia serioa zen; erromeriak, liberalagoak

- **Erref:** BER-378/028
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:38:15. **Bukatu:** 00:41:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Igandetan bandak jotzen zuen eta alaben gurasoak bertan egoten ziren haiek zaintzen. Protokolo bat zegoen dantza eskatzeko. Erromeria asko egiten ziren ere, eta bertan giroa errazagoa eta liberalagoa zen. Zubizorreko jaietako erromerian ezagutu zuen emaztea.

25. Bergarako "Peña Kikio"

- **Erref:** BER-378/030
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:41:29. **Bukatu:** 00:45:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:

"Kikio", Luis Larrañaga, Bergarako gizon famatua izan zen. Kantuan asko egiten zuen, txistua jotzen zuen, txisteak kontatzen zituen... Gaztetatik hasten ziren txikiteoan eta asko edaten zuten. Kuadrillari "Peña Kikio" izena ipini zioten eta elkarte bat ere sortu zuten.

26. Igandero elkartean bazkaria

- **Erref:** BER-378/031
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:45:50. **Bukatu:** 00:46:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

Igandero Altzasu elkartean bazkaria egiten zutenez, ez dira joan izan Pol-Pol mendi elkartearekin txangoak egitera. Baina beraien kabuz bai, inguruko mendietara gehienbat: Irimo, Irukurutzeta, Karakate...

27. Ikasten jarraitu nahi, baina lanean hasi behar

- **Erref:** BER-378/034
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:49:03. **Bukatu:** 00:50:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ehungintzan lan egiteko lanbide-eskola zegoen Bergaran eta bertako irakaslea zen Txomin Amasorrain. Berarekin egin zuen Pedrok azterketa, eta gaititu bazuen ere, bankuan lanean hasteko esan zioten. Ikasten jarraitu nahi zuen berak.

28. Fabriketan ez ezik, gutxi kobratzen zen

- **Erref:** BER-378/035
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:50:36. **Bukatu:** 00:52:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak

Laburpena:

Bankuan "botones" bezala hasi zen lanean. Beste administrari batek bezala egiten zuen, baina soldata baxuagoarekin. Udaletxean, postetxean, eskolan... lan egiteak soldata baxua suposatzen zuen. Fabriketan irabazten zen asko.

29. Gizarte mugimenduak eta kooperatibismoa

- **Erref:** BER-378/036
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:52:29. **Bukatu:** 00:54:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Kooperatibismoaren sorrera 50-60 hamarkadan eman zen eta jendearen pentsatzeko modua ere aldatzen hasi zen. Adibidez, ordura arte injenieritza ikasten zuten bakarrak, fabriketako semeak ziren, gero haiek heredatzeko asmoz. Gaur egun edonork ikaste du. Kooperatibismoa hasi zenean, ordea, jendea ezberdin pentsatzen hasi zen eta espabilatu egin zirela uste du Pedrok.

30. Kontrol polizial handia zegoen

- **Erref:** BER-378/037
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:54:43. **Bukatu:** 00:57:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Pedro ez zen gizarte mugimenduetan asko ibili. Beldur asko zegoen, poliziaren kontrola... Kulturalki bai mugitu izan da gehiago, kontzertuetara joaten, eta abar. Bergaran kontrol handia zegoen, hiru sereno zeuden eta gauerdian denak etxera joan behar izaten zuten.

31. Ez Dok Amairu boom bat izan zen

- **Erref:** BER-378/038
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:57:25. **Bukatu:** 00:59:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

60. hamarkadan hasi ziren euskarazko lehenengo bakarlari eta taldeak. Ez Dok Amairuren hasiera boom handia izan zen. Urretxindorrek-eko kideekin kantuan ibiltzen dira abesbatzan eta lagun artean.

32. Bergarako kasinoa, pribatua eta aberatsentzat

- **Erref:** BER-378/039
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:59:16. **Bukatu:** 01:01:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk

Laburpena:

Bergarako Juve ("juventudes") taldea. Hasieran "Juventudes parroquiales" izena zuten eta abade-etxean kokatuta zeuden, kasinoarekin batera. Bertatik Bergara menperatzen zen, lantegietako nagusi guztiak eta haien semeak bertan egoten zirelako.

33. Nemesio Etxanez abade euskaltzalea

- **Erref:** BER-378/040
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:01:15. **Bukatu:** 01:04:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Don Serafin Esnaola eta Don Nemesio Etxaniz abadeak gogoratzen ditu. Biak zigortuta eraman zituzten Bergarara apaiz bezala. Nemesioren kasuan, ez zuen soldatarik eta etxe batetik bestera ibiltzen zen ostatu bila. Antzerkiak idazten zituen eta baita kanta euskarara itzuli ere. Eskolan, mutikoei izena itzultzen zien ere.

34. Serafin Esnaola abadea

- **Erref:** BER-378/041
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 01:04:09. **Bukatu:** 01:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Serafin Esnaola abadea, Bergarara zigortuta heldu zen. San Antonioko kapilatxoa zeukan bere ardurapean eta mutikoak mendira eramaten zituen, bertan natura erakusteko. Euskal literatura ere irakasten zien. Gazte asko bere inguruan ibiltzen ziren eta oso maitatua zen, nahiz eta oso kontrolatuta egoten zen poliziarengatik. Itxura denez, Jose Antonio Agirreren hileta berak egin zuen. Bideokamera bat ere bazuen eta pelikulak grabatzen zituzten. Serafinekin hazi ziren haur eta gazteak, oso belaunaldia ona direla uste du Pedrok.

35. Bergarako lehenengo gerraosteko ikastola

- **Erref:** BER-378/042
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:07:07. **Bukatu:** 01:09:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Maria Victoria Arizmendi eta Lide Mujika izan ziren lehenengo ikastolaren

sortzaileak. Ez zuten irakasle titulu ofizialik, baina zekitena irakasten zuten. Gurasoek hasieran beldurra zuten, ia haien seme-alabek beste eskoletako ikasleen maila bera izango zuten edo ez. Lehenengo ikastola Komenio kalean egon zen.

36. Banco San Sebastian eta Banco Hispano-Americano

- **Erref:** BER-378/044
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:09:58. **Bukatu:** 01:12:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:

Pedrok Banco San Sebastian-eko banketxean lan egin zuen. Merkatariek sortutako bankua izan zen eta nahiko txikia zen. Banco Hispano-Americano bankuarekin elkartu zen. Bankuaren historia kontatzen du. Momentu batean, bankuko zuzendari falangista bat izan zuen Pedrok. Bankuko giroa erdalduna da,

37. Eibarko gerraosteko industria nola suspertu zen

- **Erref:** BER-378/045
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:12:24. **Bukatu:** 01:13:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debararreneko lantegiak

Laburpena:

Blas Etxebarriak eta Banco San Sebastianek, gerraostean Eibarko industria garatzeko egin zuen lana kontatzen du.

38. Banco San Sebastian-aren amaiera

- **Erref:** BER-378/046
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:13:34. **Bukatu:** 01:16:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:

1975ean, Banco Hispano-Americanoak Banco San Sebastianeko akzio guztiak erosi zituen. Lanaren funtzionamendua ez zen aldatu, baina kartelak aldatu zituzten eta bezero asko galdu zituen banketxeak. Laneko giroa euskalduna bazen ere, bezero gehienak, enpresariak, erdaldunak ziren.

39. Canovas del Castilloren heriotzaren testigu zuzena

- **Erref:** BER-378/048
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 01:16:47. **Bukatu:** 01:20:36

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea

Laburpena:

Bernarda Zabaleta, Pedroren amandrea (amona) izan zen. Inude bezala Murtziara lanera eraman zuten, Bergaran hiru seme-alaba utzita. Udan, Arrasateko Santa Agedako bainuetxera joaten ziren eta Canovas del Castillo hil zuten egunean bertan zeuden. Bernarda izan zen, ustez, Canovas hilda ikusi zuen lehenengo pertsona.

40. Canovas del Castilloren hiltzailearen exekuzioa Bergaran

- **Erref:** BER-378/049
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:20:36. **Bukatu:** 01:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea

Laburpena:

Canovas del Castillo hil zutenean, ez zeukan inguruan poliziarik ez ezer. Ez zuen espero norbaitek erasoko zionik. Hilketa gauzatu zuen anarkista, bertan gelditu zen ihes egin gabe eta Canovasen emazteak abanikoarekin jotzen zuen. Bergarako kartzela zaharrean exekutatu zuten "garrote vil" erabiliz. Egun hartan jendea ez zen lanera joan.

41. Canovas del Castilloren hiltzailea, Bergaran lurperatua

- **Erref:** BER-378/052
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 01:28:23. **Bukatu:** 01:29:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea

Laburpena:

Michelle Angiolillo, Canovas del Castilloren hiltzailea, Bergaran lurperatuta dago. Behin, ehorzleari galdetu zion eta honek esan zion bila ibili zirela baina ez zutela ezer aurkitu. Hilerrian, bedeinkatu gabeko espazio batean lurperatu zuten eta bertan jarraituko duela uste du Pedrok.

42. Maria Txantxote eta Zus Bernaerts

- **Erref:** BER-378/054
- **Iraupena:** 0:05:32. **Hasi:** 01:29:17. **Bukatu:** 01:34:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Maria Oianguren, "Maria Txantxote" deitzen zioten. Gerra garaian, Bergaratik erbestera joan ziren umeekin joan zen Belgikara eta han Amberes-ko alkatearen harreman estua egin zuen. 1963an, alkate horrek bere alaba Zus Bergarara bidali zuen eta geroztik urtero joaten da Bergarara Pazkoko jaietan eta San Martinetan.

43. Zus Bernaerts, Belgikako bergararra I

- **Erref:** BER-378/055
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:34:49. **Bukatu:** 01:37:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Zus Bernaerts-ek bidaiak antolatzen zituen, gehienbat kongresuetarako. Asko bidaiatzen zuen arren, Pazkoko jaietan eta San Martinetan, beti Bergarara joaten zen. 52 urtez egon zen Bergarara joaten. 2014ko Pazkoko jaiak baino egun batzuk lehenago hil zen. Pedrori deitu zion, hiltzen ari zela esateko.

44. Zus Bernaerts, Belgikako bergararra II

- **Erref:** BER-378/057
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 01:37:17. **Bukatu:** 01:40:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Belgikara joan zirenean Zus bisitatzeraz, haren anai baten etxean gelditu ziren. Etxe handia zen, hiru solairukoa eta koadro garestiak zituen, bakoitza alarma batekin. Opor haietan, Zus gaixorik zegoen dagoeneko. Pazkoko jaietan, egitarau osoa betetzen zuen eta saltsa denetan ibiltzen zen.

45. Zus Bernaerts, Belgikako bergararra III

- **Erref:** BER-378/059
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:40:46. **Bukatu:** 01:43:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Zus Bernaerts, Maria Txantxoteraren etxean gelditzen zen beti. Maria hil zenean, lagun batean etxean gelditzen zen beti. Bergararra zen Zus ere, asko maite zuen herria. Bergarako elizako organoa konpontzeko elkarte bat sortu zuten eta Zus izan zen lehenengo dirua jartzen. Miguel Gonzalez organo-jotzailearen oso laguna egin zen ere.

46. Telesforo Monzonen etxea

- **Erref:** BER-378/067
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 01:51:07. **Bukatu:** 01:55:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Telesforo Monzonen etxean 7-8 urtez bizi izan zen Pedro, Monzon familiako zaintzaileen alaba zelako bere emaztea. Gerra garaian ihes egin zutenean, etxea hutsik gelditu zen eta eraikin berdinean sindikatu bat, zirkulu karlista, Acción Católica eta haiek bizi ziren. Liburu asko zeudela gogoratzen du, asko gerra garaian errexisatuak izan zireneko zigiluarekin. Etxea hain handia zen, ez zuelako inoiz guztia ezagutu. Telesforo bueltatuko zenaren ustetan, etxe bat erosi zuten eta penaz utzi zuten aurrekoa.

47. Telesforo Monzon: "Maltzagaraino denak junto"

- **Erref:** BER-378/069
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:56:16. **Bukatu:** 01:57:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Telesforo Monzon Bergarara bueltatu zenean bazkariak egiten zituzten. Bera izan zen "Maltzagaraino denak junto, gero bakoitzak hartu dezala bere trena" esaten zuena.

48. Bergarako auzoen arteko desberdintasunak

- **Erref:** BER-386/002
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:02:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Garai bateko Bergarako auzoen arteko ezberdintasunak. Santa Marina, San Pedro, erdialdea...

49. Burua gaztelaniara moldatuta dauka

- **Erref:** BER-386/003
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:02:06. **Bukatu:** 00:03:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Eskola nazionaletan ikasi zuen, gaztelaniaz. Bere burua gaztelaniara dago moldatuta eta euskaraz idazterako orduan, hiztegia beti alboan izan du. Aparteko lan bat suposatzen dio.

50. Etxean euskaraz eta kalean gaztelaniaz

- **Erref:** BER-386/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:03:47. **Bukatu:** 00:05:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Umetan, euskaraz hitz egiteagatik ez zituzten zigortzen. Etxean dena euskaraz egiten zuten. Amak oso gaizki hitz egiten zuen gaztelaniaz. eta aiton-amonek hitz bat ere ez.

51. Amona, Canovas del Castelloren heriotzaren testigu

- **Erref:** BER-386/005
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:05:47. **Bukatu:** 00:08:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea

Laburpena:

Bernarda Zabaleta izan zen bere amona. Hirugarren semea izan zuenean, Murtziako familia batek bertara eraman zuen inude bezala. Udan, Arrasateko Santa Agedako bainuetxera joaten ziren eta bertan, Canovas del Castelloren heriotzaren testigu izan zen.

52. Amona, gaztelania jakin gabe, Murtzian inude

- **Erref:** BER-386/006
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:08:16. **Bukatu:** 00:09:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Amona, Murtziara inude bezala joan zen gaztelaniaz jakin gabe. Bertan urtebete eman zuen eta Bergarara bueltatu zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-03-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com